El Ayuntamiento acuerda por unanimidad aprobar la declaración sobre la televisión digital terrestre, por la que el Ayuntamiento de Auritz Burguete insta al Gobierno de Navarra a que firme los convenios necesarios con las comunidades colindantes a fin de que a través de la televisión digital terrestre puedan sintonizarse en Navarra los canales de dichas comunidades, así como las televisiones regionales propias que emitan su programación en Euskera cuyo contenido dispositivo es el siguiente:

**Primero.** De acuerdo con la moción aprobada por el Parlamento de Navarra, se insta al Gobierno de Navarra a que firme los convenios necesarios a fin de que a través de la Televisión Digital Terrestre puedan sintonizarse en Navarra los canales de televisión de las comunidades colindantes, y particularmente, las cadenas ETB1, ETB2 y ETB3 de la Comunidad Autónoma Vasca.

**Segundo.** Se ruega al Gobierno de Navarra que incluya en la oferta televisiva aquellas cadenas de televisión regionales de Navarra que emitan su programación en euskera, y que para ello, se adjudiquen a dichas cadenas las licencias digitales necesarias.

Y sin más asuntos que tratar se levantó la sesión de lo que doy fe

Auritzen, 2008ko otsailaren 5ean, 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco a., Alejandro Othegui Echeverria j., M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazaran a., Iker Oroz Garate j. eta Ignacio Irigaray Gil j. Bilkuraburu, alkatea, Jose Irigaray Gil j., izan zen eta idazkaria Pedro María Cenoz Iragui j.

#### **1.- 2008ko URRIAREN 9an EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA**

Udalak erabaki du aho batez 2008ko urriaren 9an egindako bilkuraren akta onestea.

#### **2.- 2008ko ABENDUAREN 18an EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA**

Udalak erabaki du aho batez 2008ko abenduaren 18an egindako bilkuraren akta onestea.

#### **3.- 2008ko ABENDUAREN 12tik URTARRILAREN 29a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENAK**

Alkateak 2008ko abenduaren 12tik urtarrilaren 29a arte eman dituen ebazpenei buruzko informazioa eman du. Ebazpen horiek bilkuraren espedientean daude.

#### **4.- 2009ko URTARRILAREN 13an 2008ko AURREKONTUA LUZATZEKO ALKATEAK EMAN ZUEN EBAZPENAREN BERRESPENA**

Udalak erabaki du aho batez 2009ko urtarrilaren 13an alkateak eman zuen ebazpena berrestea. Hona hemen:

*“Ikusirik oraingoz ez dela 2009ko aurrekontua onetsi Udalak ez dituelako beharrezko datu ekonomikorik.*

*EBATZI DUT:*

- 1.-2008ko aurrekontua luzatzea eta horrek 2009ko urtarrilaren 1etik indarra hartzea*
- 2.- Osoko bilkurari ebazpen honen berri ematea, berrets dezan.”*

#### **5.- 2009ko URTARRILAREN 14an 2008ko AURREKONTUA LUZATZEKO ALKATEAK EMAN ZUEN EBAZPENAREN BERRESPENA, HORREN BIDEZ UDALAK BAT EGIN DU AMAIURKO GATAZKAREN 500. URTEMUGA OSPATZEKO EKITALDIEKIN**

Udalak erabaki du aho batez 2009ko urtarrilaren 14an alkateak eman zuen ebazpenarekin bat egitea. Hona hemen:

*“Udalkideekin mintzatu ondoren,*

*Ebatzi dut: Baztango Udalari jakinaraztea Aurizko Udalak bat egin duela Amaiurko herriaren proposamenarekin, ondoren aipatzen den moduan:*

- 1.- Aurizko Udalak gogora ekarri eta omendu nahi ditu duela 500 urte gure estatuaren independentzia defendatu zutenak. Tuter, Lizarra, Burgi, Donibane-Garazi, Garris eta beste hainbeste tokietan gure askatasunaren alde burukatu zirenak omendu nahi ditugu. Independentziaren alde Amaiurko gazteluan bizitza eman zutenen kemenak bultzatuta Nafarroa bizirik dirauela baieztatzen dugu.*
- 2.- Udal honek bat egiten du 1512ko konkistaren oroimenez ospatuko diren ekitaldiekin eta ahal duen neurrian horiek laguntzen ahaleginduko da.*
- 3.- Udal honek ordezkaria igorriko du Amaiurrera 2009ko otsailaren 1ean, ospatuko den ekitaldian parte hartzeko eta egin duten deiarekin bat egin dugula konstarazteko.”*

#### **6.- 2009ko URTARRILAREN 13an ALKATEAK EMAN ZUEN EBAZPENAREN BERRESPENA. HAREN BIDEZ LURZATIEN BATERAKUNTZAREN PROZESUARI OHARPENAK AURKEZTUKO ZAIZKIO.**

Udalak erabaki du aho batez alkateak 2009ko urtarrilaren 13an eman zuen ebazpena berrestea. Hona hemen:

*“Ikusirik lurzati baterakuntzaren gainean hartutako behin-behineko erabakia eta udalkide guztiekin mintzatu ondoren.*

*Ebatzi dut:*

*Herri honetako herri lurrei dagokienez, oharpen hauek kontuan hartzea eskatzea:*

- Eskatzen da 3 poligonoko 58-3 masaren (Saroberri alderdia) zati bat 135 errepede nazionalaren parean izatea, 7 metroko zabalerarekin eta hortik 17-2 eta 41-1 lurzatietakoa sarbidea jartzea, modu horretan lurzati horiek eta 49garrena barnerago geldituz. Horren arrazoiak da oinezkoentzako bidea egitea. Horrela egingo ez balitz eskatu nahi da egungo katastroko 5 poligonoko 84 lurzatia herri lurra izaten jarraitzea, beharrezkoa baita horretan jartzea herriko establezimenduen kartela, bestela toki horretan ez litzateke posible izango horrelako kartel bat paratzea ez baitago herri lur gehiago.*

- Oiarburun, 29. zenbakidun jabeari baso zati bat ematen zaio; eskatu nahi da hori eman beharrean Kiñoetan 3 pligonok 74 eta 75 lurzatietatik dagokion ematea. Eskaera honen arrazoiak da beharrezkoa dela oihanera joateko pista zabalago bat behar dela eta baita alderdi horretan oihan aprobetxamenduetarako zura kargatzeko lekua behar dela.
- Aranandiko 44, 47 eta 30-1 lurzatiien muga egungo bidea izatea proposatzen da. Eskatzen dena da lurzati horien muga gaur egun dena mantentzea, ematen zaien bete hori Oiarburuko oihan ustiaketetan zura kargatu eta makinak paratzeko erabiltzen baita eta ,mendra joaten diren askok toki horretan ibilgailuak uzten dituzte.
- Labakietako 33, 13-2 eta 24-1 lurzatiak 5 poligonoko 5 lurzatiia eman zaie, gaur egun herri-lurra kontsideratzen da. Eskatzen da alde horrek gaur egun duen izaera mantentzea, 33 lurzatiari hori bera eman baizaio, hortik lurpeko azpiegitura asko pasatzen baita eta herrian egurra uzteko tokirik ez dutenek hor uzten baitute. 13-2 lurzatiari eman zaiona, lurpeko horniduren pasabidea baita eta oinezkoentzako egingo den bidearen muga baita, hortik adindu asko pasatzen baita, eta 24-1 lurzatiari eman ziona ibaiari joateko bidea delako eta Tejeria, Soroluzea, Cuarentena eta Joalegietan bazkatzen den aziendaren pasabidea.
- Proposatzen den 14. zenbakidun lurzatiari egungo katastroko 5 poligonoko 3 esparruko 211 lurzatiari dagokion bidea ematen zaio. Bide hori "Mardiren bidea" deitzen zaio eta bizilagunek aunitzetan erabiltzen dute N-135 errepidetik ez pasatzeko eta ingurugiro inpaktuaren ikerketan mantendu eta hobetzea proposatu da. Hortaz 14. lurzatiia atzerago paratu eta haren eta 34. lurzatiaren arteko pasabidea mantentzea proposatu da.

Alkateak jakinarazi du Udalaren izenean ahoz iradokizun bat egin zuela Txardiensaro eremuan 6 poligonoko 149 lurzatiaren zati baten egokitzapenari buruz.

Udala jakinaren gainean gelditu da eta alkatearen gestioa onartu du.

7.- AURIZKO UDAL ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILERA ETA SUSTAPENA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA.

Udalak erabaki du aho batez Aurizko Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantza hasiera batean onestea.

#### **8.- EZKONTZAK BAIMENDU ETA EGITEKO, ETA HERIOTZAGATIK ETA JAIOTZENGATIK AGUR ZIBILAK ETA OMENALDIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA**

Udalak erabaki du aho batez ezkontzak baimendu eta egiteko, eta heriotzagatik eta jaiotzengatik agur zibilak eta omenaldiak arautzen dituen Ordenantza.

#### **9.- EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEI APARKATZEKO TXARTELAK EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA**

Udalak erabaki du aho batez ezgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko txartelak ematea arautzen duen Ordenantza onestea.

#### **10.- HIRIGINTZA ELKARTEARI KAPITALA EMATEA**

Ikusi da bai Udalari zein Aurizko herriari komeni zaiola lurzatiak Aurizko Hirigintza Elkartetik kudeatzea eta horretarako beharrezkoa dela lurzati horiek elkartearenak izatea gero saldu ahal izateko, proposatu da Aurizko Hirigintza Elkarteko kapital soziala handitzea eta horretarako Kanaleburuako 7 A, 7 B eta 7C lurzatiak hartuko dira; lurzati horiek Kanaleburuako Xehetasun Azterlanaren

Aldaketaren ondorioz eratu dira, 2008ko urriaren 9an udalak egindako osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

Modu berean Udalak eskatu dio udal arkitektuari, Gonzalo Galbete Martincorena j., lurzati horiek balora ditzala eta informazio hori espedienteari erantsi zaio.

Hartu beharreko erabakia bozkatu da eta Udala denez "Aurizko Udal Hirigintza Elkarteko" kide bakarra eta Elkarteko Batzar Orokorraren izaera hartzen duenez, aho batez erabaki da:

Lehenengo.- "Aurizko Udal Hirigintza Elkartea S.L.U."-ren kapital soziala berrehun eta bost mila eurotan igotzea (205.000€); horiek aurretik zegoenari gehituta, laurehun eta hirurogeita hamabi mila euro (472.000 €) seiehun eta hirurogeita hamazazpi mila euro (677.000 €) egiten dute; kopuru hori da kapital sozial berriarena. Horretarako berrehun eta hogeita sei partizipazio sortu dira, bakoitza mila euroko balioarekin, 473tik 677ra zenbatuak, bazkide bakarrak egindako dirugabeko aportazioen bidez, aldeztatik Administrazio Kontseiluak egindako informea kontuan hartuz.

Bigarren.- Administrazio Kontseiluaren txostena onartu da; horretan aportazioak zehazten dira, haien balioa, aportazioa egingo duen pertsona juridikoa, partizipazioen zenbatekoa eta gehitutako kapitalaren zenbatekoa, elkartearantzako interesgarria delakoan, horrek suposatzen duelako Kanaleburua Unitatean Udalak dituen lurzatiak elkarteari ematea, hura izango baita lurzati horiek kudeatuko dituenak. Lurzatiak 7A, 7B eta 7C eta Kanaleburuako birzatiketatik eratu dira.

Hirugarren.- Lehen aipatutako kapital igoera gauzatzea; horretarako Aurizko Udalak, bazkide bakarra denez, berrehun eta bost partizipazioak sinatu eta jasotzen ditu, 473tik 677ra, biak barne, berrehun eta bost mila euroko balioan (205.000€); diru hori ondoren aipatzen diren lurzatiaren bidez ematen du, guztiak Aurizko dermioan:

HIRI-LURZORUA – 7A LURZATIA (Agoizko Jabetza Erregistroan inskribatua, 342 liburukia, 17 liburua, 1 orria, 999 zenbakidun lurzatia), familia bakarrek etxebizitza isolatuak edo atxikiak egiteko, Aurizko KANALEBURUAN, bostehun eta hirurogeita hamahiru metroko azalera, gehieneko okupazioa ehun eta bederatzi metro koadrokoa eta gehieneko aprobetxamendua berrehun eta hemeretzi metro koadrokoa.

Mugak: iparraldetik 7B lurzatia, hegoaldetik V.P. lurzatia, ekialdetik ibilgailu eta oinezkoak pasatzeko lurzatia eta mendebaldetik ZV 2 lurzatia. Hirigintzako Plangintzaren gastuen %4ko partizipazioa du eta haren karga hamar mila laurehun eta lau euro eta laurogeita hiru zentimokoa da, behin-behineko likidazio kontuan.

Balioa: HIRUROGEITA ZAZPI MILA eurotan baloratu da (67.000 €).

HIRI-LURZORUA – 7B LURZATIA (Agoizko Jabetza Erregistroan inskribatua, 3421 liburukia, 17 liburua, 6 orria, 1.000 zenbakidun lurzatia), familia bakarreko etxebizitza isolatuak edo atxikiak egiteko, Aurizko KANALEBURUAN, bostehun eta hirurogeita hamahiru metroko azalera, gehieneko okupazioa ehun eta zazpi metro koadrokoa eta gehieneko aprobetxamendua berrehun eta hamalau metro koadrokoa.

Mugak: iparraldetik 7C lurzatia, hegoaldetik 7A lurzatia, ekialdetik 9 eta 10 lurzatia eta mendebaldetik ZV 2 lurzatia. Hirigintzako Plangintzaren gastuen %4,3ko partizipazioa du eta haren karga hamar mila laurehun eta lau euro eta laurogeita hiru zentimokoa da, behin-behineko likidazio kontuan.

Balioa: HIRUROGEITA SEI MILA eurotan baloratu da (66.000 €).

HIRI-LURZORUA – 7C LURZATIA (Agoizko Jabetza Erregistroan inskribatua, 3421 liburukia, 17 liburua, 11 orria, 1.001 zenbakidun lurzatia), familia bakarreko etxebizitza isolatuak edo atxikiak egiteko, Aurizko KANALEBURUAN, bostehun eta hirurogeita hiru metroko azalera, gehieneko okupazioa ehun eta bederatzi metro koadrokoa eta gehieneko aprobetxamendua berrehun eta hemeretzi metro koadrokoa.

Mugak: iparraldetik bidea, hegoaldetik 7B lurzatia, ekialdetik 8 eta 9 lurzatia eta mendebaldetik ZV 2 lurzatia. Hirigintzako Plangintzaren gastuen %4,3ko partizipazioa du eta haren karga hamar mila laurehun eta lau euro eta laurogeita hiru zentimokoa da, behin-behineko likidazio kontuan.

Balioa: HIRUROGEITA HAMABI MILA eurotan baloratu da (72.000 €).

Aurizko Udalak erantzukizunak izango ditu Elkartearen eta hirugarrenen aurrean aportazioak egin eta horien balioarengatik.

Horren ondorioz, egindako partizipazio guztien zenbatekoa ordainduta dago, gainontzeko kapital soziala bezala horren balio nominalaren ehuneko ehunean.

Laugarren.- Egindako kapital handiketaren ondorioz, Estatutu Sozialen 7. artikulua aldatu da eta honela geldituko da:

7. Artikulua.- Kapital soziala seihun eta hirurogeita hamazazpi mila eurokoa da, seihun eta hirurogeita hamazazpi partizipaziotan banatua, bakoitza mila euroko balioarekin eta batetik laurehun eta hirurogeita hamabira zenbatuak, biak barne.

Aipatutako kapital soziala Aurizko Udalak ordaindu du osotasunean, bera baita partizipazio guztien jabe, Udalbatzen Zerbitzuen Arautegiaren 89. artikulua dioenari jarraiki eta ezin da besterendu ezta enpresaren helburu diferente batera destinatua; posiblea da kapital hori handitu edo txikitzea, legeak dioen moduan.

Bosgarren.- Elkartearen Administrazio Kontseiluburuari, Jose Iragari Gil j., ahalmena ematea notarioarengana joan eta hartutako erabakiak publiko

egiteko, eta baita egingo den eskritura berria sinatzeko, eta, ezinbestekoa balitz, baita hasierako eskritura ere.

Seigarren.- Erabaki hauek Aurizko Udalak hartu ditu, elkarteko kide bakar gisa.

### **11.-2009ko LAN ESKAINTZA**

Udalak erabaki du aho batez 2009ko Lan Eskaintza onartzea:

Peoi 1. E maila. Kontratuaren iraupena: 2009ko maiatzaren 1etik azaroaren 30a arte.

Peoi 1. E maila. Kontratuaren iraupena: 2009ko uztailaren 1etik irailaren 30a arte.

### **12.- 2009ko ZERGA TASAK**

Alkateak proposatu du zerga tasak izandako KPIren arabera igotzea.

Udalak erabaki du aho batez 2009ko zerga tasak onartzea. Hona hemen:

1.- Ehuneko 0,35ko karga tasa jartzea hirilurraren gaineko kontribuzioa ordainarazteko.

2.- Ehuneko 0,83ko karga tasa jartzea herrilurraren gaineko kontribuzioa ordainarazteko.

3.- Ehuneko 3,88ko karga tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko (gutxienekoa 30€ izango da).

4.- 1,33 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.

5.- Hirilurren balio erreala igotzeko portzentaia: ehuneko 2,2 eta tasa ehuneko 8,6koa.

### **13.- UDALETXEA KONPONTZEKO LANAK FINANTZATZEKO ORREAGAKO UDALAREKIN HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA**

Alkateak jakinarazi du Orreagako Udalak proposatu duela bere udaletxea konpontzeko dirulaguntza jasotzeko aukera duela eta Aurizko udaletxea erabiltzen duenez diru hori Aurizkoan gastatzea proposatu du.

Horrek ez duela erran nahi Orreagako Udala Aurizko udaletxearen jabetza hartuko duenik,.

Aurizko Udalak lan guztiak ordaindu eta dirulaguntza osoa jasoko luke (%70), haren erdia fondo galdura eta gainontzekoa mantenimendu gastuetatik urtero Orreagako Udalak ordaintzen duenaren kargura.

Udalak erabaki du aho batez proposamena onartzea.

### **14. UDAL FRONTOIA ERABILTZEKO ETA ARGITASAK ORDAINTZEKO ARAUTEGIAREN HASIERAKO ONESPENA**

Udalak erabaki du aho batez 2009ko apirilaren 1etik aitzina frontoiko argiaren gastuetaz arduratuko dela, fitxak 1,5 € balioko dutela eta frontoiko errentatzaileak salduko dituela, eta jasotzen duen dirua Udalari emango diola.

Modu berean bandoa igorriko zaie bizilagunei horren berri emateko eta horretan aipatuko da frontoian edo fitxen-kutxan kalteak gertatuko balira Udalak egokiak jotzen dituen neurriak hartuko dituela.

#### **15.-OSOKO BILKUREN AKTAK JENDAURREAN JARTZEKO OHOLA**

Alkateak jakinarazi du duela urte batzuk osoko bilkuretako aktak ez direla udaletxeko atari ondoko oholean jartzen, baizik eta sarrerakoan. Legeak dioena ongi betetzen bada ere, web orrian argitaratzen baitira, uste duela kanpoko oholean jarri behar direla. Atarrabian zegoen Nekazal Perituen Eskolako iragarki oholak doan lortu dituela eta horiek jartzea proposatu du Udalak erabaki du aho batez udaletxeko atariaren ondoan iragarki ohol bat jartzea osoko bilkuren aktak bakarrik paratzeko.

#### **16.- MENTOR FORMAKUNTZA GELA.**

Alkateak jakinarazi du eskualdeko toki entitate batzuen artean (Esteribar, Artzibar, Aezkoa, Auritz-Burguete eta Luzaide Valcarlos ) adostasunera iritsi direla Mentor Formakuntza Gelaren proiektuarekin 2009an aurrera egiteko. Udalak erabaki du aho batez Mentor Formakuntza Gela 2009ko abenduaren 31 mantentzea.

#### **17.- JAUREGIAROTEGIKO ZATI BATEN ERABILERA NAFARROAKO GOBERNUARI UZTEA**

Alkateak jakinarazi du ez dela erabiltzeko lagapen bat, baizik eta lurzatiei baterakuntza egiten denean Jauregiaroztegiako Lingaren zati bat Nafarroako Gobernuari uztea, Aretxekosaron duen lurzatiaren truke; modu horretan hezegune hori mantentzearen lanak Nafarroako Gobernuak egingo lituzke, balio ekologiko handikoa baita, eta horrek eragina izango luke inguruko eremuan.

Udalak erabaki du aho batez Lurzatiei Baterakuntza egiten denean Jauregiaroztegi zati bat uztea Nafarroako Gobernuari.

#### **18.- UDAL ARTXIBATEGIA HANDITZEA**

Alkateak jakinarazi du artxibategia handitu behar zela eta idazkariaren pisutik gela bat hartu dela horretarako eta idazkariaren bulegoan altzariak aldatu direla inolako gasturik gabe.

Udalak erabaki du aho batez alkateak egindakoa berrestea.

#### **19.- INTERREG LINDUX PROIEKTUA**

Alkateak jakinarazi du Nafarroako Gobernuak interes handia erakutsi duela proiektu honekiko, Aurizko Udalak ezin zielako aurre egin kudeaketa gastuei, hasierako fasean bakarrik 12.000 euro zirelako; hemendik aitzina ardura gehiena Gobernuak izango du eta Udala ekimenaren parte bat besterik ez da izango, gutxi gora behera 20.000 € jasoko ditu urtero eta egingo diren azpiegitura guztien jabe izango da.

Modu berean proposatu dio osoko bilkurari, diru laguntza lortuz gero, ikerketa bat egitea 2009an Natura eta Ornitolan enpresekin, hegazti migrarien kontaketa egiteko eta horren kostua 10.000 € izango dela.

Udalak erabaki du aho batez:

1.- Egindako kudeaketarekin adostasuna adieraztea eta Interreg Lindow proiektuan parte hartzea hegazti migrarien ikerketa egiteko eta beharrezko hitzarmenak sinatzea.

2.- Pilotu-esperientzia martxan jartzea 2009an, Natura eta Ornitolan enpresekin batera, beharrezkoa finantzazioa lortuz gero.

3.- Natura eta Ornitolan enpresei gai honekiko adierazi duten jarrera eta kolaborazioa eskertzea.

## **20.- PIRINIOKO PARTZUERGO TURISTIKOA**

Alkateak Pirinioko Partzuergo Turistikoa eta Erroibar, Auritz, Orreaga eta Luzaideko alkateen artean izandako bileraren gaineko informazioa eman du. Bilera horretan aipatu zen Partzuergoaren egoera ez dela batere ona eta balitekeela desegitea. Bilera horretan ikusi zutela komenigarria dela Partzuergoaren jarduera etetea baina Pirinio marka mantentzea eta horren aldeko erabakia hartzea proposatu du.

Modu berean jakinarazi du Partzuergoak ikerketa egingo duela Donejakue Bidea destino gisa dituen aukerak aztertzeko; destino hori Esteribar, Erroibar, Auritz, Orreaga eta Luzaide hartuko lituzke eta horretarako badagoela 22.000 euroko dirulaguntza; beste aldetik, destino horretan oinarritutako partzuergo berria sortzeko edo orain arte izan duguna berpizteko aukerak aztertu behar direla dio.

Udalak erabaki du aho batez Pirinioko Partzuergoari esatea mantendu behar dela baina jarduerarik egin gabe, partzuergoa berpiztu edo berria sortuko den erabaki arte.

## **21.-BESTERIK:**

### **2.009 - 2.012 Toki Azpiegituren Planan eskatutako lanak.**

Alkateak jakinarazi du 2009-2012 Toki Azpiegituren Planan eskatu behar diren herri lanak: atzeko aldeko karriken zolaketa, kanposantuaren pareten konponketa eta hezurtegi bat egitea eta baita udaletxeko zola eta leihoen konponketa (azkeneko hau Orreagako Udalarekin sinatutako hitzarmenaren kargura).

### **San Nicolás karriaren konponketa.**

Alkateak jakinarazi du Bideetako Zerbitzuak zenbait konponketa egingo dituela San Nicolás karrikan, batez ere Martindorre eta Oloriz etheen artean egiten den putzua konpontzeko.

Modu berean jakinarazi du Villa Mariako jabeek eskatu diotela Udalari errepidera ematen duten zuhaitzak kimatu nahi dituztela, haien itexurek kaltetzen dutelako errepidea.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

### **Altzariak**

Alkateak jakinarazi du doako altzariak lortu dituela udal bulegoetarako eta artxiborako; idazkaritzako mahai zaharra zaharberritu behar dela bilkura aretoan jartzeko, nahiz eta material onekoa egina ez egon, baina balio historikoa duela Pedro Etchepare Irozek (Piarre) egin baitzuen, armairuak eta zizeiluarekin batera, eta bilkura aretoan dauden altzariekin bat egiten duelako, gaur egun daudenak baino hobeki gelditzen delako.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

#### **Aharien bordara ura eramatea.**

Alkateak jakinarazi du Javier eta Juan Eraso-Zabalegui anaiek eta Daniel Santamaría Cabodevillak, nekazal ingeniarietako ikasleak eta NUPeko bekadunak, ikerketa bat egin dutela Aharien bordara ura eramateko; ikerketa hori aprobetxatu eta gauzatu ahal dela Lurzatien Baterakuntza egiten denean, beti ere dirulaguntza lortzen bada.

Udala jakinaren gainean gelditu da eta eskerrak emango die Javier eta Juan Eraso-Zabalegui anaiei eta Daniel Santamaría Cabodevillari egindako lanarengatik.

#### **Hitzarmena-Udalbide**

Alkateak jakinarazi du Udalak hitzarmena sinatu duela Udalbiderekin Garaitzeko-Asi elkarteari erreztasunak emateko dirulaguntzak lortzeko kultur jarduerak burutzeagatik. Hitzarmen horren bidez Aurizko Udalak urtero kuota ordainduko dio Udalbideri, aurten 1.500 €, eta kantitate hori Garaitzeko-Asik ordainduko dio Udalari.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

#### **Ekonomía eta Enplegua sustatzeko Estatuko Fondo Berezia sortzen duen Errege Foru Dekretuaren bidez (azaroaren 28ko 9/2008) eskatutako herri lanak.**

Alkateak jakinarazi du azaroaren 28ko 9/2008 Errege Foru Dekretuaren bidez Estatuko Fondo Berezia sortu dela Enplegua eta Economía sustatzeko eta horren bidez eskatu dela Aurizko harresiak berreskuratzeko proiektuan 7.zkia duen pareta zaharberritzea; Kultura Departamenduko ordezkariekin bilera egin zela behar den harria lortzeko, baina azkenean ez dagoela aukerarik horretarako. Lanak egiten direnean eta harresiaren zati bat konpontzen denean aztertuko dela eremu hori historikoki, kulturalki eta turistikoki balioztatzeak aukera dagoen.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

#### **2009ko langabetuen planean eskatutako obrak.**

Alkateak 2009ko langabetuen planean eskatutako obren gaineko informazioa eman du.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

#### **Elizaren konponketa**

Alkateak jakinarazi du apaizarekin mintzatu dela San Nicolás elizaren mantentze lanei buruz, teilatuan itaxurak daudelako eta aurreko aldeko pareta hondatzen ari baita teilatuak hegalki ez duelako eta arazo horiei konponbidea bilatu behar zaiela dio.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

Udalak erabaki du ondoko gaia urgentziaz sartzea eguneko gai zerrendan.

#### **OIHANETAKO JARDUKETA PLANA 08/09 ETA ZUHAITZAREN EGUNA**

Alkateak jakinarazi du 08/09 Oihanetako Jarduketa Planaren kargura eskatutako dirulaguntzen zati bat jaso dela, horien barne Sorginaritzagan haritzen landaketa txiki bat sartzen dela; hortaz gain proposatu du zuhaitzaren eguna ospatzea Aurizko ikasleen partaidetzarekin, oihanaren garrantziaz eta izadiari zor diogun errespetuaz kontzientzia har dezaten.

Udalak 2008/2009ko oihanetako jarduketa plana jakintzat eman du eta erabaki du aho batez zuhaitzaren eguna antolatzea, Aurizko ikasleek eta nahi duten bizilagunek Sorginaritzagan haritzen landaketa eginez.

Udalak erabaki du ondoko gaia urgentziaz sartzea eguneko gai zerrendan.

#### **LURZATIEN BATERAKUNTZA. AURIZBERRIKO KONTZEJUAREKIN SINATUTAKO HITZARMENA**

Alkateak jakinarazi du lurzati biterakuntza egiten denean badagoela aukera Aurizberriko dermioan bide bat egiteko bakarrik nekazal erabilerarako, gastuak Aurizko Udalak ordainduko lituzkela eta bidea Aurizberrikoa izango litzatekela eta horretarako hitzarmena sinatzea beharrezkoa dela.

Udala jakinaren gainean gelditu da eta erabaki du alkateari almena ematea hitzarmena sinatzeko.

Udalak erabaki du ondoko gaia urgentziaz sartzea eguneko gai zerrendan.

#### **LURREKO TELEBISTA DIGITALARI BURUZKO ADIERAZPENA. HORREN BIDEZ, AURIZO UDALAK NAFARROAKO GOBERNUA PREMIATZEN DU BEHARREZKOAK DIREN HITZARMENAK SINA DITZAN LURREKO TELEBISTA DIGITALAREN BIDEZ NAFARROAN ALDAMENEN AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ETA TOKIAN TOKIKO EUSKARAZKO TELEBISTA KATEAK IKUSTEKO AUKERA EGON DADIN.**

Otegi jk. lurreko telebista digitalaren gaineko deklarazioaren edukia jakinarazi du; horren bidez Aurizko Udalak Nafarroako Gobernuari premiatzen du beharrezkoak diren hitzarmenak sina ditzan inguruko komunitateekin Lurreko Telebista Digitalaren bidez Nafarroan aldameneko autonomia erkidegoetako telebista kateak, eta Nafarroan tokian tokiko euskarazko telebistak ikusi ahal izateko; hori guztia Euskara Zerbitzuak eskatuta proposatu du onartua izan dadin.

Udalak erabaki du aho batez lurreko telebista digitalaren gaineko deklarazioa onartzea; horren bidez Nafarroako Gobernuari premiatzen du beharrezkoak diren hitzarmenak sina ditzan inguruko komunitateekin Lurreko Telebista Digitalaren

bidez Nafarroan aldameneko autonomia erkidegoetako telebista kateak, eta Nafarroan tokian tokiko euskarazko telebistak ikusi ahal izateko. Hona hemen haren edukia:

**Lehena.** Parlamentuan onetsitako mozioarekin bat eginez, Nafarroako Gobernuak premiatzea beharrezkoak diren hitzarmenak sina ditzan Lurreko Telebista Digitalaren bidez Nafarroan aldameneko autonomia erkidegoetako telebista kateak, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko ETB1, ETB2 eta ETB3 kateak ikusi ahal izateko.

**Bigarrena.** Nafarroan tokian tokiko euskarazko telebistak ikusteko aukera eskaintzea, eta horretarako, Nafarroako Gobernuak telebista kate horiei beharrezkoak diren lizentzia digitalak ematea.”

Eta horrenbertzez, bilera amaitu da eta akta hauxe egin dut, alkatearen oniritziarekin, bertan aztertu eta erabaki direnak idatziz jasota gera daitezen.